La presente intervención arqueológica ha estado motivada por la realización de una serie de obras destinadas a la renovación y reurbanización de la calle Olazar. En el transcurso de las mismas se pusieron al descubierto una serie de elementos de cierta relevancia, identificados por la responsable del Museo-escuela de Eskoriatza, Isabel Guridi.

La calle Olazar se localiza en pleno casco urbano histórico de la localidad, al norte del mismo más concretamente. La zona presentaba a priori una serie de condicionantes favorables debido a la presencia en sus proximidades de los restos de la antepara de la antigua ferrería y molino de Olazar.

La zona se encontraba sumamente alterada por el paso de diferentes acometidas urbanas (electricidad, agua, etc.) y la posterior reurbanización del área que ha provocado que el terreno se encuentre sumamente alterado respecto a su primitiva situación. Estos aspectos condicionaron muy negativamente el estado de conservación de los restos al haber resultado dañado buena parte del mismo. El área comprendida por la intervención era bastante reducida, escasamente unos 56 metros cuadrados, comprendida entre la anteriormente señalada antepara y el antiguo camino a la desaparecida iglesia parroquial de San Pedro.

Los restos localizados pertenecen a una pequeña parte de la primitiva infraestructura hidráulica empleada para impulsar la maquinaria de la ferrería y el molino, y que posteriormente fue asimismo empleada por una central hidroeléctrica. Estos restos se corresponden básicamente con los cimientos de un tramo de la primitiva antepara, la que había sido destruida hacia 1970 con motivo de la reurbanización del área y rebajada hasta su estado actual para la edificación de nuevas viviendas en sus inmediaciones.

Esta antepara estaba ejecutada mediante un muro de mampostería no concertada de gran consistencia, ligado con una argamasa con un alto contenido calizo. La parte conservada presentaba unos 8 metros de desarrollo total y 1,60 de ancho, y en su parte más baja se localiza parcialmente un pequeño tramo del canal a modo de pasillo abovedado. Este pasillo presenta una bóveda ejecutada mediante una serie de lajas de caliza dispuestas verticalmente ligadas con la misma argamasa que los muros de la antepara. Esta bóveda se apoya en los laterales sobre sendos muros a base de sillares, difíciles de identificar por la fuerte concreción existente. No habiéndose podido documentar en toda

tuak eten egiten dituelako. Guztizko sakonera ere ezin izan dugu egiaztatu zabor betegarri sendoa zuelako eta zabor horiek ateratzeko orduan hondeamakinak zailtasunak izan dituelako. Nolanahi ere, gutxienez bi metro eta erdiko sakonera egiaztatu ahal izan dugu.

Ganga-formako kanal horretara irekitzen ziren hasieran, alboetara, ondoko artoekin komunikatzen zuten baoak, harren ondoan kokatuko baitziren tailer osagarri desberdinak. Bao horiek ez dira berdin kontserbatu, korridorearen mendebaldeko muturrean daudenak dira baina nabarmenak, baina iparraldekoa baino ez da osorik kontserbatu. Leihoburu zuzen monolitikoa ageri dute biek, inposta erdizirkular banaren gainean bermatua, arreta handiz landua dago.

Kanalaren ekialdeko muturrean ere beste bi sarrera daude alboko aretoetara sartzeko, baina hauek askoz ere xumeagoak dira, eta gainera, ez dira bat ere ondo kontserbatu. Gaur egun, ondoko artoak zaborrez beteta daude ia erabat, eta harragatik, ezin izan dugu areto horien ezaugarririk zehaztu.

Erabili ditugun dokumentu iturrien arabera, esan dezakegu burdinola eta errota hau gutxienez XVII. mendean bazirela jada, baina seguru asko lehenagokoak

su longitud por encontrarse interrumpido por el trazado de las líneas de alta tensión. Su profundidad total tampoco se ha podido comprobar ante el potente y lleno de escombros existente y las dificultades con las que se ha encontrado la máquina excavadora a la hora de realizar su extracción. De todas formas se ha podido constatar una profundidad de al menos dos metros y medio.

A este canal abovedado se abrían primitivamente hacia los laterales los vanos que lo ponían en comunicación con las estancias auxiliares donde se situarían los diferentes talleres anexos. Unos vanos que se encuentran en muy diferente estado de conservación, siendo los dos más destacados aquellos situados en el extremo más occidental del pasillo, estando compuesto por sendos vanos gemelos justo uno enfrente del otro, de los cuales sólo el septentrional se conserva completo. Ambos presentan un dintel recto monolítico apoyado sobre sendas impostas semicirculares, delicadamente tallados.

En el extremo más oriental del canal se localizan asimismo otros dos accesos a sendas estancias laterales, pero éstos presentan una factura mucho más sencilla, siendo además su estado de conservación bastante deficiente. En la actualidad las estancias anexas se encuentran casi totalmente colmatadas con escombros, lo que ha imposibilitado determinar las características de ninguna de ellas.

Las fuentes documentales manejadas nos permiten remontar la existencia de esta ferrería y molino hasta al menos el siglo XVII, aunque muy probablemente sean



Olazarko Burdinola-errota (Eskoriatza). Ganga-formako kanalaren ahoa eta antepararen zimenduak.

Ferrería-molino de Olazar (Eskoriatza). Boca del canal abovedado y cimientos de la antepara.

izango dira. Interbentzio honetan atzemaniko hondakinak, ordea, geroagoko une batekoak dira, eta zehatz adierazteko, XVIII. mendean azken herenekoak (1785-86 inguru), une horietan eraberritze lan handia egin eta instalazioak handitu baitzituzten jabe berriek.

Olazarko burdinola, Errotazar izenez ere ezaguna, jardunean arituko zen Lehen Gerra Karlista (1833-1840) baino lehentxoago arte, eta gerra horren ondoren, burdinolari eratzkitako erratak soilik jarraituko zuen lanean. Geroago, egitura hidrauliko hori bera berrituz aprobeztatu zen inguru honetan 1922. urtean instalaturiko zentral hidraulikoaren turbinaren mugitzeko. Zentral hori hornitzeko, instalazio berriak eraiki ziren *“aurreko eraikuntzek okupaturikoaren ondoko eremuan”*, eta gainera, burdina forjatzeko hodi bat jarri zitzaion, eta haren hondakinak aurkitu genituen interbentzio arkeologikoan. Zentral hori jardunean aritu zen joan den mendeko berrogeita hamargarren urtean erdialdera arte, eta gari horretatik aurrera, aprobeztamendu puntualak izan zituen (eltze fabrika eta abar). 1970. urtean *“Virgen de Dorleta”* Etxebizitza Kooperatibari saldu zitzaion finka. Enpresa horrek lurra erabat irauli zuen eta etxebizitza berriak eraiki zituen; horren aurretik jada adierazi zuten makina-etxea eta ondoko teilapeak *“eraitsiak izan dira, eta horrenbestez, gaur egun orubea baino ez da”*. Berrir urbanizatzean, aldaketa handiak eragin zituen eremuaren bitartean, hondakin asko ezkutuan geratu ziren, eta lurra forma erabat aldatu zen. Hala eta guztiz ere, hondakin horietako gutxi batzuk berrituz agerian utzi ahal izan ditugu aztertzeke, egungo urbanizazioaren azpian kontserbatuz.

anteriores a estas fechas. Sin embargo, los restos localizados en esta intervención datan de un momento más reciente, y más concretamente del último tercio del siglo XVIII (hacia 1785-86), momento en el que sus nuevos propietarios procederán a efectuar una considerable reforma y ampliación de las instalaciones.

La ferrería de Olazar, conocida también con el nombre de Errotazar, se mantendrá activa hasta poco antes de la primera Guerra Carlista (1833-1840), quedando tras ella solamente en funcionamiento el molino anexo. Posteriormente esta misma infraestructura hidráulica será reaprovechada para mover la turbina de una central hidroeléctrica instalada en la zona en el año 1922 y para cuyo abastecimiento se construyeron nuevas instalaciones *“en un lugar contiguo al ocupado por las anteriores construcciones”*, dotándola además con una tubería de hierro forjado cuyos restos fueron localizados durante la intervención arqueológica. La central permaneció activa hasta mediados de la década de los años cincuenta del pasado siglo, contando a partir de la fecha con aprovechamientos puntuales (fábrica de ollas, etc.). En el año 1970 la finca será vendida a la Cooperativa de viviendas *“Virgen de Dorleta”*, quien se encargará de rezojar completamente el área y proceder a edificar nuevas viviendas; con anterioridad ya habían señalado que la casa de máquinas y sus tejamanas anexas *“han sido derruidas por lo que en la actualidad todo está reducido exclusivamente a solar”*. La reurbanización del área provocará cambios importantes en su configuración, ocultando buena parte de los restos y modificando importantemente la configuración del terreno. A pesar de todo ello una parte mínima de estos restos han podido salir nuevamente a la luz para su estudio, conservándose bajo la actual urbanización.

Miren García Dalmau

D.3.1.7. **Agintari 33-35 eta Santa Maria 7 (Tolosa)**

Sonia San José Santamartak zuzendua
Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta
Gizarte Gaietako Sailak
finantzatua

D.3.1.7. **Agintari 33-35 y Santa María 7 (Tolosa)**

Dirigida por Sonia San José Santamarta
Financiada por el Departamento de
Vivienda y Asuntos Sociales del
Gobierno Vasco

This report outlines the results of the archaeological study of the sites located at 33 and 35 Agintari Street and 7 Santa María Street. The study was carried out in two phases, the first involving a series of sondages to assess the sites' archaeological potential, and the second involving a more in-depth excavation of the area.

2001eko abendua eta 2002ko urtarrila artean interbentzio arkeologiko bat egin dugu Agintari kaleko 33, 35 zenbakietan eta Santa María kaleko 7 zenbakian (Tolosa) dauden orubeetan. Indusketa hori egin dugu eremu horretan oin berriko etxebizitza batzuk eraikitzekeko proiektua zegoelako, eta eraikuntza lan horiek eragin

Durante el mes de diciembre de 2001 y enero de 2002 se ha realizado la intervención arqueológica de los solares situados en las calles Agintari nº 33, 35 y Santa María nº 7 (Tolosa). Esta excavación viene motivada por el proyecto existente para la construcción de viviendas de nueva planta durante el cual se iba a afec-

handia izango zutelako zorupean aurkitutako depositu arkeologikoan. Duten kokalekuar engatik, orube horiek udalerriko Hiri historikoaren barnean daude, eta gune arkeologiko hori Kultur Ondasun izendatua dago, Monumentu Multzoa kategoriaz, eta Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean⁴⁹ sartua dago, eraikuntza obrak egiten hasi aurretik interbentzio arkeologikorako proiektu bat egiteko eskatzen du Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak.

Eraikuntza lanek depositu arkeologikoan eragingo zituzten kalteak arintzeko xedean, interbentzio arkeologiko honetan hainbat zundaketa arkeologiko egitea erabaki genuen hiru orubeetan banatuak. Aldez aurretik lortutako emaitzak ikusirik, zundaketak egin ondoren, bigarren indusketa-fase bat egin genuen ukituriko hiru orube horietan irekitako eremuan.

Interbentzio hau amaitu berria denez, alde aurreko emaitzak baino ezin ditugu aurkeztu, landa-fasean lortutako informazio guztiaren prozesatze lana egiten ari baikara oraindik. Ezer baino lehen, aipatzekoa da indusketa lanetan dokumentaturiko egiturak eta depo-

⁴⁹ Agindua, 1998ko otsailaren 12koa, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuarena (EHAA 1998ko martxoaren 26koa).

tar de modo irreversible al depósito arqueológico localizado en el subsuelo de los mismos. Debido a la ubicación de los solares, dentro del Casco Histórico del municipio, protegido como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental e inscrito en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco⁴⁹, la Ley 7/1990, de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco exige la realización de un proyecto de intervención arqueológica previo a la realización de las obras.

Con el objetivo de paliar los daños que los trabajos de construcción iban a suponer para el depósito arqueológico, la intervención arqueológica planteó la realización de varios sondeos arqueológicos distribuidos en los tres solares. A la vista de los resultados preliminares obtenidos, una vez realizados los sondeos, se procedió a realizar una segunda fase de excavación en áreas abiertas de los tres solares que iban a ser afectados.

Dada la reciente finalización de esta intervención sólo se pueden presentar resultados preliminares, ya que todavía se está realizando el procesado de toda la información obtenida durante la fase de campo. Antes de nada, es necesario resaltar la excesiva complejidad

⁴⁹ Orden de 12 de febrero de 1998, de la Consejera de Cultura del Gobierno Vasco (BOPV del 26 de marzo de 1998).



Agintari 33-35 eta Santa María 7 (Tolosa). Indusketaren ikuspegi orokorra.

Agintari 33-35 y Santa María 7 (Tolosa). Vista general de la excavación.

situ arkeologikoak oso konplexuak dira, eta horregatik, une honetan ezin ditugu xehe interpretatu indusketa prozesuan aurkitutako hondakinak.

Hala eta guztiz ere, eta oraindik beste interpretazio batzuk egin daitezkeen arren, aurreratu dezakegu, hiribilduaren historian zehar hainbat lur-zatiketa eta aldaketa jasan dituzten hiru oruber en aurrean gaudela. Orube hauetako etxeek Erdi Aroko ohiko tipologiari erantzuten diote, hau da, etxe mehar eta luzeak dira, baina gutxienez etxeetako batean aro modernoan handitze lan bat egin zela dokumentatu ahal izan dugu. Hormak, egungo zoruaren mailara jaitsiak guztiak, batzuek besteekin elkartuak daude, eta batzuetan oso zaila da haien interpretazioa egitea.

Zalantzarik gabe, aipatzekoa da kultura materialeko objektu ugari dokumentatu ditugula, eta hori ezohikoa da, azken urteetan udalerrri honetan egindako indusketekin alderatzen badugu. Material hori trazatu eta aztertu ondoren, datu baliotsuak eskainiko dizkigu hiribilduaren historiaren garai desberdinetan zehar Tolosak izan duen bizitzari buruz.

Aurkitutako elementuen kronologia zehazteari dagokionean, egiturei loturik agertu diren material arkeologikoen deposituak kontuan hartzen baditugu, hasiera batean esan dezakegu garai modernoko egitura direla, baina aurkitutako hondakinetakoren bati erreparatzen badiogu, ez dugu baztertzeko egitura hauetakoaren bat Erdi Arokoa izateko aukera.

Bestalde, gure arreta gehien piztu duen hondakinetako bat harrisi egitura baten zimenduen hondakinak dira; egitura horrek hasiera batean oin karratua izan zuen eta gero erdizirkularra, murruek metrobetetik gorako zabalera zuten, eta Agintari kaleko 35. orubean zegoen. Agintari kaleko 37. etxearen hegoaldeko hormak ebakitzen du egitura hau, eta suntsitua dago, kareharrizko lehen ilara bat baino ez baita kontserbatu. Itxura batean, Tolosako hiribildua inguratzen zuen Erdi Aroko harresiko igarobideetako bati loturik egon daiteke, barnealdea ibai ertzarekin eta alde horretan zeuden baratzekin lotzeko igarobidea izan baitzitekeen. Hipotesi hori oraindik ez dugu egiaztatu, azterketa historikoak eta harresi egituraren dataketak eskainiko dizkiguten datuen zain baikauden.

Era berean, aipatzekoak dira lurreko buztin naturalean zulaturiko egitura zirkularrak, gehienek oin zirkularra dute eta perfil ahurra, eta Santa Maria kaleko 7. orubean aurkitu ditugu. Silo edo zulo horiek zabor deposituetan beteak daude gaur egun, eta etxeetako barne banaketarako hormak baino lehenagokoak dira. Jatorriz zein funtzio izango zuten ez dakigun arren, pentsa dezakegu biltegi deposituak izango zirela, eta zalantzarik ez dago etxebizitza-espazioen aurrekoak direla, etxebizitza-espazio horiek haien gainean eraikiak baitira. Kronologia zehaztu gabe dago oraindik.

Agintari 33, 35 eta Santa Maria kalea 7ko orubean indusketa arkeologikoa amaitu ondoren, hiribilduaren hainbat okupazio garairi dagozkion deposituak eta eraikuntza egiturak aurkitu ditugula esan dezakegu, aurki-

de las estructuras y depósitos arqueológicos documentados durante los trabajos de excavación, lo que nos impide en estos momentos, realizar una interpretación con detalle de los restos encontrados durante el proceso de excavación.

Aún y todo, y a riesgo de poder realizar nuevas reinterpretaciones, se puede adelantar que nos encontramos ante tres solares que han sufrido diferentes reparaciones y modificaciones a lo largo de la historia de la villa. Estos solares, responden a la tipología típica medieval de casas estrechas y largas, aunque se ha podido documentar una ampliación en época moderna de al menos una de las casas. Los muros, arrasados todos ellos a nivel del suelo actual, se encuentran unos con otros, siendo en ocasiones muy difícil su interpretación.

Sin duda, hay que resaltar la abundante documentación de objetos de cultura material, insólita, si lo comparamos con excavaciones realizadas en los últimos años en este municipio, el cual una vez tratado y estudiado, nos puede ofrecer valiosos datos sobre la vida cotidiana de Tolosa, a lo largo de los diferentes períodos de historia de la villa.

En cuanto a poder establecer una cronología de los elementos encontrados, si tenemos en cuenta los depósitos de material arqueológico asociados a las estructuras, en un primer momento nos encontramos a estructuras adscritas a época moderna, aunque, a juzgar por alguno de los restos encontrados, no se descarta que alguna de las estructuras correspondan a época medieval.

Por otra parte, uno de los restos que más llama nuestra atención, se corresponde con los restos de cimentación de una estructura muraria, que en un primer momento tuvo planta cuadrada, y luego semicircular, con muros de más de un metro de ancho, situada en el solar nº 35 de la calle Agintari. Esta estructura, está cortada por el muro sur de la casa 37 de Agintari, y se encuentra arrasada, conservándose solamente una primera hilada de piedras calizas. A primera vista, podría estar asociada a uno de los pasos de la cerca medieval que rodeaba la villa de Tolosa, el cual comunicaría la zona interior con la orilla del río, y las huertas situadas en esa zona. Esta hipótesis está todavía sin verificar, a falta de los datos que pueda ofrecer el estudio histórico y la datación de la estructura muraria.

También hay que resaltar las estructuras circulares excavadas en la arcilla natural del terreno, de planta en su mayoría circular y perfil cóncavo, encontrados en el solar nº 7 de la calle Santa María. Estos silos o agujeros, hoy en día estaban rellenos con depósitos de escombros, y son anteriores a los muros de compartimentación interna de las casas. Aunque su función original se nos escapa, podemos suponer que responden a depósitos para almacenamiento y no cabe duda de que son anteriores a los espacios de vivienda, los cuales han sido construidos encima de los mismos. Todavía está por determinar su cronología.

Una vez finalizada la excavación arqueológica de los solares Agintari 33, 35 y calle Santa María 7, podemos decir que se han detectado depósitos y estructuras constructivas correspondientes a diferentes

tutako unitate estratigrafiko guztien eta beren erlazioen prozesatze eta azterketaren zain egon beharko dugun arren. Dokumentazio historikoaren azterketa ere egin beharko da dokumentaturiko hondakin horiek zehatz interpretatu nahi baditugu.

momentos de ocupación de la villa, aunque habrá que esperar al procesado y estudio de todas las unidades estratigráficas encontradas, sus relaciones, así como al estudio de la documentación histórica para poder realizar una interpretación con exactitud de los restos documentados.

Sonia San José Santamarta

D.3.1.8. **Santa Maria Plaza eta Plaza Zaharra (Tolosa)**

Sonia San José Santamartak zuzendua

Tolosako Udalak
finantzatua

D.3.1.8. **Plaza Santa María y Plaza Zarra (Tolosa)**

Dirigida por Sonia San José Santamarta

Financiada por el Ayuntamiento de
Tolosa

This study outlines the results of the archaeological study prompted by the urban regeneration works carried out in Plaza Santa Maria and Plaza Zarra in Tolosa's Historic Quarter. The study revealed further information regarding the medieval cemetery linked to the old town church (13th and 14th centuries), as well as uncovering the remains of a small provisional workshop for casting bells. The excavation of Plaza Zarra revealed information about the occupation of the site prior to the construction of the old Town Hall and the widening of the square.

Santa Maria Plaza eta Plaza Zaharra berriro urbanizatzeko proiektua abian zegoelako egin dugu interbentzio arkeologiko hau. Bi plaza horiek Tolosako Hiri historikoaren hegoekialdean daude. Obra horiek azalera handia hartu behar zutenenez, proiektua idazteko orduan hainbat eremu bereizi ziren jarduera arkeologikorako, haietako bakoitzean aurreikusitako potentzial arkeologikoa kontuan harturik. Mañila horiek zehazteko, 1995. urteaz geroztik alde honetan egiten ari diren interbentzio arkeologikoetatik etorritako informazio guztia hartu genuen kontuan. Horregatik, Santa Maria Plazan indusketa zabaleran egitea erabaki genuen, Santa Maria Parrokiaren fatxadaren inguruko eremuan, zehatz esateko, eta baita Plaza Zaharrean ere. Leku horietan, Udaletxe Zaharraren alboko lauki bat ireki genuen, plaza horren iparraldeko muturrean. Bi plaza horien gaineko kontrol arkeologikoak egitea erabaki genuen obren jarraipena egiteko.

Bi eremu horien indusketa 4 hilabetetan zehar egin dugu, 2001eko urrian hasi eta 2002ko urtarrilera arte. Lan horiekin batera, Plaza Zaharreko obrak kontrolatu ditugu, eta Santa Mariako obren kontrola, berriz, oraindik egin gabe dago. Indusketa lanak orain dela gutxi amaitu ditugunez, kapitulu honetan indusketa horren behin-behineko datuak baino ezin ditugu eskaini, laborategian datu guztiak prozesatu eta ateratako materialak aztertu arte.

La presente intervención arqueológica tiene su origen en el proyecto de reurbanización de la Plaza Santa Maria y Plaza Zarra, situadas ambas en la zona sur este del Casco Histórico de Tolosa. Debido a la gran superficie que iba a ser afectada por las obras, en la redacción del proyecto se establecieron diferentes zonas de actuación arqueológica, según el potencial arqueológico previsto en cada una de ellas. Para establecer estos grados se tomó en cuenta toda la información procedente de las intervenciones arqueológicas que desde 1995 se vienen realizando en esta zona. Por ello se estableció la aplicación de la figura de excavación en área en la Plaza de Santa Maria, concretamente en la zona circundante a la fachada de la parroquia de Santa Maria, situada en el extremo este de la plaza, así como en Plaza Zarra, donde se abrió un cuadro colindante a Udaletxe Zarra, situado en el extremo norte de la misma. En el resto de las dos plazas se estableció la figura de control arqueológico para el seguimiento de las obras.

La excavación de las dos áreas se ha realizado durante 4 meses desde octubre de 2001 hasta enero de 2002. Paralelamente a estos trabajos se ha procedido a realizar el control de las obras de Plaza Zarra, mientras que el control de las obras de Santa Maria está todavía por realizar. Debido a la reciente finalización de los trabajos de excavación, en el presente artículo no podemos más que adelantar datos provisionales de la misma a falta de realizar todo el procesado de los datos en laboratorio, así como el tratamiento de los materiales extraídos.

Santa Maria plazako interbentzioa

Interbentzio honi esker, nabarmen handitu dugu hiribilduko lehengo elizari loturiko Erdi Aroko nekropoliari buruz gure informazioa, Santa Maria parrokiako gaur egun hartzen duen leku berean zegoen eliza zahar hori ere. 2000. urtean egin gure lanean, hogeitabate eskeleto geratu ziren agerian, XIII. Mendearen amaierakoak eta XIV. Mendearen hasierakoak. Oraingo honetan 80 eskeletotik gora berr eskuratu ditugu; horiek erre aurrekoen ezaugarri berdinak zituzten, hobi bakunean ehortziak izan ziren eta ia ez zuten arrok, ahokorazak, eta gutxi gora-behera kaleetan antolatuta. Aipatzekoa da alde batzuetan hilobiratze ugari daudela, batzuk bestearen gainean. Hilakuten hondakinak erre azaldu dira leku batzuetan.

Bestalde, guretzat ezusteko handia izan da kanpaiak galdatzeko taller txiki bati zegozkion egiturak aurkitu izana. Eliz atari nagusiarren iparraldean dago, eta hura baino lehenagokoa da. Baliteke haren azpian tallerri loturiko hondakin gehiago egotea. Aurkikuntza hau benetan garrantzitsua da talleraren erdia egitura guztiak aurkitu ditugulako, hau da, moldearen egitea, moldearen zokaloa buztinez egina, eta hobiaren aldean, kanpaiaren moldearen barnera zuzenean botatzeko brontzea galdatzen zen labe edo sutegia. Era berean, galdaketa lan hauei loturik, putzu txiki bat dokumentatu dugu labearen ondoan.

Indusketa lana amaitu ondoren, giza hezurkiak atara ditugu azterketa antropologikoa egiteko, eta kan-

Intervención en la Plaza Santa María

Gracias a esta intervención hemos ampliado notablemente la información acerca de la necrópolis medieval asociada a la anterior iglesia de la villa, situada en el mismo lugar que hoy ocupa la parroquia de Santa María. Durante la actuación desarrollada en el 2000 salieron a la luz una veintena de esqueletos datados a finales del siglo XIII y principios del XIV. En esta ocasión se han recuperado más de 80 esqueletos con las mismas características, enterrados en fosa simple sin apenas ajuar, en posición de *decúbito supino*, y dispuestos más o menos en calles. Resalta la gran densidad de enterramientos en algunas zonas, situados unos encima de otros. También se han encontrado en algunos casos evidencias de ataúdes.

Por otra parte, la localización de estructuras correspondientes a un pequeño taller para la fundición de campanas ha sido una sorpresa para nosotros. Está situado en la zona norte del pórtico principal de la iglesia, siendo anterior a la misma. No se descarta que debajo de éste pueda haber más y estos relacionados con el taller. La importancia de este descubrimiento reside en que se han localizado prácticamente el total de las estructuras del taller, esto es, el foso donde se construía el molde, el zócalo del molde realizado con arcilla y, contiguo al foso, el horno o fragua donde se fundía el bronce para ser vertido directamente al interior del molde de la campana. Así mismo, relacionado con estos trabajos de fundición, se ha documentado un pequeño pozo junto al horno.

Una vez realizada la excavación, se han extraído los restos humanos para realizar el estudio antropológico,



Santa María plaza - Plaza Zaharra (Tolosa). Kanpaiaren galdaketari loturiko egituren ikuspegi orokorra.

Santa María Plaza - Plaza Zarra (Tolosa). Vista general de las estructuras relacionadas con la fundición de campanas.

paiak galdatzeko tailerraren egiturak, berriz, *in situ* utzi ditugu, poliespanez babestu ditugu eta berrir o lurperatu egin ditugu, obr ek ez baitzituzten hondakin horiek ukitu behar.

Plaza Zaharreko interbentzioa

Plaza Zaharrean amaitu berri dugun indusketa honetan, gutxienez etxebizitza baten bizileku egitur en hondakinak atzeman ditugu. Era ber ean, hainbat tipologiako silo batzuk ere aurkitu ditugu, baina silo horien hasierako funtzioa ez dugu oraindik zehaztu. Herriko Etxea eraikitzeke eta plaza handitzeko, hiribilduko biztanle batzuen ekimenez 1679. urtean eraitsi zir en bost etxeetako bat da etxebizitza hau.

Aipatzekoa da siloetako batean zabortegei bat agertu dela, eta bertan hondakin material ugari zegoela, gehienak zeramikazkoak, eta baita kontsumorako fauna hondakinak ere, aro garaikidekoak guztiak. Azpimarratzekoa da, halaber, urre koloreko loza zati ugari agertu dir ela. Depositu honek err egin zutela ematen du, bar nealdera zaborra bota eta ber ehala agian.

y las estructuras correspondientes al taller de fundición de campanas se han dejado *in situ*, protegiéndolas con poliespan, y enterrándolas de nuevo ya que no iban a ser afectadas por las obras.

Intervención en Plaza Zarra

La recién finalizada excavación de Plaza Zarra ha descubierto restos de las estructuras de habitación de al menos una vivienda, así como varios silos de diferentes tipologías, cuya función original está por determinar. Esta vivienda se corresponde con una de las cinco casas que fueron derribadas por iniciativa de algunos vecinos de la villa en 1679 para la construcción de la Casa Consistorial y la ampliación de la plaza.

Es de resaltar la aparición de un basur ero localizado en uno de los silos, que ha aportado cuantioso restos materiales, en su mayoría cerámicos, y r estos de fauna para el consumo, datados en época moderna. Llama la atención la gran cantidad de fragmentos de loza dorada. Este depósito presenta muestras de haber sido quemado, quizá inmediatamente al vertido de basura al interior.

Sonia San José Santamarta

D.3.2. ZUNDAKETAK

D.3.2.1. Santiгомendi (Astigarraga)

M^a Teresa Izquierdok zuzendua

Astigarragako Udalak
finantzatua

D.3.2. SONDEOS

D.3.2.1. Santiгомendi (Astigarraga)

Dirigida por M^a Teresa Izquierdo

Financiada por el Ayuntamiento de
Astigarraga

As part of a project to improve the environment around the Santiгомendi Hermitage, a series of test trenches were undertaken in the area with extremely positive results. On the one hand, we have been able to investigate a large area around the hermitage and have identified with a fair degree of accuracy the limits, dispersion and various levels of concentration of the surviving archaeological remains. Furthermore, we have also detected at least two closed stratigraphic contexts that will enable us to gain absolutely reliable datings. One of these seems to be a non-metallurgic combustion structure with ceramic materials possibly dating from the 1st Iron Age, while the other is a pit with fragments of modelled coal and pottery corresponding to different technologies, similar to those discovered during previous excavations in this same site.

Liburu honetan bertan Santiгомendin eginiko IV . Indusketa kanpainako landa-lanak aurkeztu genituenean adierazi genuen bezala, maiatzeko hilabetean eta ekainaren lehenengo astean premiazko interbentzio bat egin genuen Santiгомendi aztar nategian, Astigarragako Udalak sustatuta, ermitaren ingurua eraberritu eta hobetzeko proiektua abian zegoelako. Proiektu honetan, talde erredaktoreak proposaturiko jarduerak ebaluatzea izan genuen helburu aztamategiaren kontserba-

Tal y como ya señalábamos en este mismo volumen al presentar los trabajos de campo de la IV Campaña de excavación en Santiгомendi, durante el mes de mayo y la primera semana de junio realizamos una intervención de urgencia en el yacimiento de Santiгомendi con motivo del proyecto de mejora del acondicionamiento del entorno de la ermita promovido por el Ayuntamiento de Astigarraga. Nuestro objetivo en este proyecto consistió en la evaluación de las

zioaren ikuspegitik begiratuta, halakorik behar izanez gero, zegozkion neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

Ebaluazio hau aurrera eraman ahal izateko, zundaketa sistematikoak egin behar izan genituen proiektuak ukitzen zituen eremuetan. Jarduera garrantzitsuetako bat mendebaldeko mazelan lurra ber dintzea zen lurra boteaz, leku batzuetan metrotik gorako lodiera baitzuten betegarriek. Beste jar duera garrantzitsua bideak zabaltzea zen, hegoaldeko mazelar enoian eta Agineta eta ermita dagoen muinoaren arteko gainean bi aparkaleku egokitzeko. Kontuan izanik jar duera hauek azalera handia hartzen zutela eta eremu hauetan azpizorua zuen interes arkeologikoa behar bezala ezagutzen ez genuenez, aurreikusitako obrek izan zezaketen eragina zehatz-mehatz ebaluatzeko aukera eraginkorrena zundaketa linealak egitea zela pentsatu genuen, gutxi gora-behera 50 cm zabaleko zanga jarraiari moduan, zundaketa horien artean 4 eta 6 m arteko tartekak utzita. Udalak gure eskura jarri zuen atzerakako hondeamakina txikiaren bidez egin genuen lan hori.

Ondoren, laburbilduta adieraziko ditugu zundaketetan lortutako emaitzak, baina hondakin arkeologikoak aurkitu ditugun eremuen berri baino ez dugu emango. Interbentzio honen gai izan diren gainerako eremuetan, hau da, hegoaldeko mazelatik Elemazalkara doan mendibidearen ondoko lurretan eta Agineta eta ermita er muinoaren arteko gainean zegoen lursail txiki batean, -aparkalekuak egiteko lurra ber dintzea planteatzen zen

actuaciones propuestas por el equipo redactor desde el punto de vista de la conservación del yacimiento para establecer las correspondientes medidas correctoras en el caso de que ello fuera necesario.

Para poder llevar a cabo esta evaluación fue necesario realizar sondeos sistemáticos en las zonas afectadas por el proyecto. Las actuaciones más importantes suponían la regularización del terreno en la ladera oeste mediante vertido de tierras, suponiendo en algunos puntos rellenos de más de un metro de espesor, así como el ensanchamiento de caminos para habilitar dos zonas de aparcamiento, al pie de la ladera sur y en el collado entre Agineta y la cima donde se encuentra la ermita. Dada la extensión de la superficie afectada por estas actuaciones y el insuficiente conocimiento del interés arqueológico del subsuelo en estas zonas, planteamos como opción más eficaz para evaluar con precisión el posible impacto de las obras previstas la realización de sondeos lineales, en forma de zanjas continuas de unos 50 cm de ancho, separadas por una distancia de entre 4 y 6 m, mediante la pequeña máquina retroexcavadora puesta a nuestra disposición por el ayuntamiento.

A continuación, exponemos sucintamente los resultados de los sondeos, limitándonos únicamente a las zonas en las que han sido detectados restos arqueológicos. En el resto de la zona que ha sido objeto de esta intervención, es decir, los terrenos al pie de los que pasa la pista que conduce hacia Elemazalka por la ladera sur y una pequeña parcela en el collado entre Agineta y la cima de la ermita, zonas en las que se



Santiгомendi (Astigarraga). T2 Zundaketaren zabaltzea: errekuntza egitura izan litekeena.

Santiгомendi (Astigarraga). Ampliación del sondeo T2: posible estructura de combustión.

alde horietan-, eginiko zundaketak erabat antzuak izan ziren:

1) Mendebaldeko mazela, ermita en zelaigunearan oinean:

13 zundaketa egin genituen guztira, zanga moduan, ekialde-mendebalde norabidean, (T1etik T13 arteko zenbakiak jarri genizkien). T2 deituriko zundaketa izan ezik, emaitzak ez ziren bat ere garrantzitsuak izan, arkeologiaren ikuspegitik erabat antzuak baitziren en haietako bat kenduta. Zundaketa horretan ere zeramikazko zati txiki bat baino ez genuen jaso, zeramika modelatua eta porotsua zen, baina estratigrafiaren ikuspegitik ez zuen inolako garrantzirik.

Aldiz, T2 zundaketa en mendebaldeko muturrean, interes handiko egitura bat aurkitu genuen ia 30 cm-ko sakoneran, humus eta lur marroi ilunez osaturiko geruzaren azpian eta, egitura txikia zenez, induskatzen hasi ginen. Kubeta bat zen, ia planta zirkularrekoa, diámetro metro bat eta zertxobait handiagoa zuen eta 40 cm-ko sakonera gehienez ere, lurreko buztin horixketan zulatua zegoen. Kubeta hori lur marroniz bete zegoen, eta ikatz puska ugari ageri zituen (batzuk kiskalitako adarren zatiak ziren), zeramikazko zati handi batzuk ere ageri zituen, zeramika modelatua eta porotsua zen, jakiak gorde edo biltzeko ontzi handienak ziren en batzuk eta dekorazio plastikoak ageri zituzten (behatez markaturiko lokarriak), buztinezko blokeak ere baziren han eta hemen, buztin erre zuten eta haietako batzuek gutxienez aldeetako bat lautua ageri zuten eta beste batzuek angelu zuzen paralelo formako inprimak zituzten. Kubetaren perimetrotik kanpo, zeramikazko zati txikiren bat baino ez genuen atzeman, deposizio ondoko prozesuren baten eraginez berri lekutik mugitua seguru asko.

Materialen azterketa bidean dago une honetan. Alde batetik, jasotako ikatzak eta sedimentu laginak E.H.U.ko Arkeobotanika Laborategira bidali ditugu azterketa antrakologikoa egiteko, eta sedimentu laginetan azterketa karpologikoa ere egingo da era horretan hondakinak agertzen badira. Oraingoan, Lydia Zapata eta Mónica Ruízek egindako aldean aurreratu txostenean adierazten da gehienak kiskalitako zur puskak direla, Quercus subg. Quercus zatiak, eta noizean behin Hurritz, Pago eta Haltz ikatzak.

Horrez gainera, ikatz laginak aukeratu eta bidali ditugu C14 bidezko dataketa egiteko. Lerro hauek idazten ari garen unean dataketa horien emaitzen zain gaudete. Halaz ere, berreskuratutako zeramikazko materialen tipologiari erreferentzia badiogu, Burdin Arokoak edo Azken Brontze Arokoak izan daitezkeela uste dugu, baina oraingoan ezin dugu beste zehaztapenik egin. Dataketa absolutuek behin-behineko hipotesi hori egiaztatzen edo zuzenduko digute seguru. Garbi dago, berreskuratutako zeramiken izaera ikusi ondoren, eta kontuan izanik oso testuinguru berria ezian azaldu direla, ezinbestekoa dela tipologia aztertzeaz gainera, erabilitako zeramika oreak ere aztertzea. Buztin erreko blokeei ere azterketa mineralogiko-petrografikoa egingo zaie.

planteaba una explicación para habilitar zonas de aparcamiento, los sondeos realizados fueron completamente estériles:

1) Zona de la ladera oeste, al pie de la explanada de la ermita:

Se realizaron un total de 13 sondeos en forma de zanja con orientación este-oeste, (denominados T1 a T13). Excepto en el sondeo denominado T2, los resultados fueron escasamente relevantes ya que resultaron totalmente estériles desde el punto de vista arqueológico a excepción de uno de ellos, donde únicamente se recogió un minúsculo fragmento de cerámica modelada porosa irrelevante desde el punto de vista estratigráfico.

Por el contrario, en el extremo oeste del sondeo T2 localizamos a apenas 30 cm de profundidad, bajo la capa de humus y tierra marrón oscura, una estructura de gran interés, que por sus pequeñas dimensiones procedimos a excavar. Consistía en una cubeta de planta prácticamente circular, con un diámetro de poco más de 1 m y una profundidad máxima de 40 cm, excavada en las arcillas amarillentas del terreno. Esta cubeta se hallaba colmatada con tierra marrón con abundantísimos carbones (en algunos casos fragmentos de ramas carbonizadas), grandes fragmentos de cerámica modelada porosa, correspondientes en algunos casos a grandes recipientes de despensa o almacenaje con decoraciones plásticas (cordones digitados), y bloques de arcilla cocida, en bastantes casos con al menos una de sus caras aplanada y algunos de ellos con improntas en forma de ángulos rectos paralelos. Fuera del perímetro de la cubeta apenas se localizó algún pequeño fragmento de cerámica, seguramente desplazado por algún proceso postdeposicional.

El estudio de los materiales está en estos momentos en curso. Por una parte, se ha enviado al Laboratorio de Arqueobotánica de la U.P.V. los carbones y muestras de sedimento recogido para su estudio antracológico y un eventual estudio carpológico, si en las muestras de sedimento se evidencia la presencia de este tipo de restos. Por el momento, en el informe preliminar elaborado por Lydia Zapata y Mónica Ruíz se señala la presencia claramente mayoritaria de madera carbonizada de Quercus subg. Quercus, y muy puntualmente de carbones de Avellano, Haya y Aliso.

Además, se han seleccionado y enviado muestras de carbón para su datación por C14. En el momento en que escribimos estas líneas estamos a la espera de los resultados de estas dataciones, no obstante, a juzgar por la tipología de los materiales cerámicos recuperados consideramos que podrían atribuirse a la Edad del Hierro o el Bronce Final, sin que podamos hacer más precisiones. La serie de dataciones absolutas nos confirmará o corregirá esta hipótesis provisional. Evidentemente, la entidad de las cerámicas recuperadas y lo peculiar del contexto en el que han aparecido hace obligado un estudio no sólo tipológico, sino también de las pastas cerámicas empleadas. Los bloques de arcilla cocida también van a ser objeto de un estudio mineralógico-petrográfico.

Atzemaniko egitura horren funtzioaren interpretazioari dagokionean, errekuntza egitura baten hondakinak izan litezkeelako hipotesia lantzen ari gara oraingoz. Egiturari loturik zepa hondakinik azaldu ez denez, badi-rudi logikoa dela jar duera metalurgikoekin zerikusia duen egitura izan daitekeelako ideia erabat baztertua. Oraingoz, ezin dugu gauza gehiagorik zehaztu egitura horren funtzioari buruz. Etxeko sukaldeko labor en bat izan liteke (baina hipotesi horren aurkako argudioa izan liteke barnealdean aurkitutako ontzien tipologia), edo beharbada, zeramikak erretzeko egitura xume bat izango zen. Edozein dela ere bidean dagoen ikerketa horren emaitza, nolahi ere, Gipuzkoako, Kantauriko ez esateagatik, arkeologia protohistorikoan aurkikuntza benetan berria dela esan daiteke oraingo hau.

2) Mendebaldeko mazelaren gainerakoa:

Proiektuan aurreikusitako betegarriak ukitzen zuen gainerako eremuaren zati bat 1999. eta 2000. urteetan katak egin ziren sektorearekin bat zetorren, eta sektore horretan emaitza positiboak izan ziren. Horrenbestez, *a priori*, eremu horretan hondakin arkeologikoak aurkituko genituela pentsatzen genuen, baina katek ez ziguten utzi kontserbaitezkeen hondakinen zabalera ikusten.

5 zundaketa egin genituen guztira, hau da, ukituriko azalera zanga jarrai paraleloak ireki genituen, elkarren artean 4-6 m-ko tarte utzita (T14tik T18ra). Or o har, zundaketa horiek aukera eman digute er emu honetan materialak oso sakabanatuak daudela egiaztatzeko, baina esan behar da, gehienetan, elkartu gabeko zatiak kopuru handietan agertzen zirene guneak zirela. Ia beti, kareharri ugari zegoen eremuetan izan ezik (zundaketak egin ditugun eremuaren iparraldeko ertzean batik bat), zati horiek lur organikoena zuten geruzen oinarrian azaltzen ziren, buztin horizko estratuaren gainean.

Zundaketa horietako hirutan (T15, T16 eta T18) interes bereziko puntuak aurkitu genituen, material dentsitate handiagoa ageri baitzuten. Zundaketa zertxobait zabaldu genuen, material horiek agertzen ziren testu inguru estratigrafikoa hobeto baloratu ahal izateko. Hala bada, T15 eta T16 zundaketetan, azalera handiagoa hartu genuen, metro 1 eta 1,5 artean zabaldu bai genituen zangak bi aldeetan, gainerako puntuetan ohi zena baino material kopuru handiagoak ageri zituzten puntu batzuen (gehiena zeramika modelatu porotsua eta buztin erreko zatiren bat) izaera egiaztatu ahal izateko. Nolanahi ere, zabaltze lan horien bidez, hondakinen presentzia handiagoa egiaztatzea baino ez genuen lortu, jarduera puntual batzuen erakusgarri izango ziren agian, baina haiei loturiko egitura hondakinik ez dugu aurkitu.

T18 zundaketan egindako zabaltzeak, ordea, emaitza interesgarriagoak eskaini zizkigun. Oraingo honetan, zundaketa zabaltzea erabaki genuen zeramikazko zati handi samarrak aurkitu genituelako, aztar nategiaren indusketan aurkitutako bi mota horietakoak zirene, eta ikatz ugari ere azaldu zen, 80 cm inguruko sakoneran, lur marr oiz osaturiko geruza lodi baten azpian. Bestela erabat antzia zen geruza hori. Aurkitutako

En cuanto a la interpretación de la función de esta estructura, por el momento, trabajamos con la hipótesis de que podría tratarse de los restos de una estructura de combustión. Dado que no se han hallado restos de escoria asociados, parece lógico descartar que se trate de una estructura relacionada con actividades metalúrgicas. Por el momento, no podemos precisar mucho más sobre la función de la estructura. Podría tratarse de algún horno culinario doméstico (aunque en contra de esta hipótesis se podría argumentar la tipología de los recipientes hallados en su interior), o quizá una estructura muy simple para la cocción de cerámicas. Sea cual sea el resultado de la investigación en curso, en cualquier caso, lo que sí podemos decir es que nos encontramos ante un tipo de evidencia ciertamente novedosa en la arqueología protohistórica guipuzcoana, por no decir, cantábrica.

2) Resto de ladera oeste:

El resto de la zona afectada por el rellenado previsto en el proyecto coincidía en parte con el sector en el que se habían realizado catas en los años 1999 y 2000 con resultados positivos. Era previsible a priori, por tanto, que se localizasen restos arqueológicos, pero las catas no nos habían permitido conocer en extensión la entidad de los restos que se pudieran conservar.

Se realizaron un total de 5 sondeos que peinaron la superficie afectada en forma de zanjas continuas paralelas separadas por una distancia de 4-6 m (T14 a T18). En general, los resultados de estos sondeos permiten confirmar que en esta zona hay una dispersión importante de materiales, si bien hay que decir que en la mayor parte de los casos lo que se localizaba eran puntos en los que aparecían fragmentos cerámicos no agrupados en grandes concentraciones significativas. Casi siempre, excepto en las zonas donde aparecía la caliza masivamente (sobre todo en el extremo norte de la zona sondeada), estos fragmentos aparecían en la base del estrato de tierra más orgánica, sobre el estrato de arcilla amarilla.

En tres de los sondeos (T15, T16 y T18) se localizaron puntos de especial interés por hallarse una mayor densidad de materiales. Fueron objeto de pequeñas ampliaciones del sondeo para valorar mejor el contexto estratigráfico en el que aparecían. Así, en los sondeos T15 y T16 se amplió ensanchando entre 1 m y 1,5 m las zanjas a ambos lados para comprobar la entidad de unos puntos en los que aparecía un número de evidencias (mayoritariamente cerámica modelada porosa y algún fragmento de arcilla cocida) mayor del habitual en el resto de los puntos. En cualquier caso, mediante las ampliaciones no pudo más que confirmarse una presencia más abundante de restos, evidencia quizá de actividades puntuales más intensas pero sin restos de estructuras asociadas.

Más interesante en sus resultados fue la ampliación realizada en el sondeo T18. En este caso, lo que motivó la ampliación del sondeo fue la localización de fragmentos de tamaño bastante apreciable de cerámica de los dos tipos que venimos observando en la excavación del yacimiento, junto con abundante carbón, y a unos 80 cm de profundidad, por debajo de un potente estrato de tierra marrón por lo demás completamente

zeramika, zeramika modelatu porotsua zen alde batetik (Burdin Aroko herrixketako zeramiken antzekoa), eta bestalde, desgrasante ugari zuten zeramikazko zati batzuk atzeman genituen, zeramika latza zen eta kolore irregularra zuen, laranja kolore eta grisaxka. Zeramika horiek torneatu gabeko zeramika arruntak ekartzen dizkigute gogora, erronkaren garaiko aztarnategietan ohikoak diren zeramikak, eta haien presentzia jada ezagutzen genuen Santiagomendin 1997. urteaz geroztik, baina orain arte ezin izan genituen aurkitu testuinguru estratigrafiko itxi batean.

Material horien inguruan zundaketa 2 x 2 m inguru zabaldu ondoren, egiaztatu ahal izan genuen zeramika horiek eta haien ondoko ikatzak buztin horian induskatu kubeta txiki bat betetzen zuten betegarriarren inguruetan zeudela. Kubeta horren oinak forma obalatu samarra zuen, 30 x 20 cm ingurukoa, eta 30 cm-ko sakonera gehienez. Zeramikak buztin erreko bloke txiki baten ondoan zeuden, bloke horiek paralelepipedo forma zuen eta 2 cm diametro inguruko zulo bat zuten erdialdean, hain zuzen ere zuloa zegoen puntu horretan zaitua. Zeramiken azpian, kubetaren betegarriak ikatza eta formarik gabeko burdin erreko zatiren bat besterik ez zuten ageri. Kubeta txiki horren kanpoaldeko inguruan ez genuen inolako material arkeologikorik aurkitu.

T2 zundaketan aurkitutako materialekin egin genuen bezala, ikatz eta sedimentu laginak bidali ditugu azterketa arkeobotaniko osoa egiteko, eta era berean, ikatz lagin bat bidali dugu C14 bidezko dataketa egiteko (AMS). Espero dugu hondakin hauen dataketa eta diziplina arteko azterketak lagunduko digutela egitura txiki hau kronologian kokatzen, eta betetzen zuten funtzioaren interpretazioa zehazten. Izan ere, T2 zundaketan aurkitutakoarekin batera, aztarnategi honetan testuinguru estratigrafiko itxietan eginiko aurkikuntza bereziak dira benetan, eta uste dugu, interes handiko informazioa eskainiko digutela Santiagomendiko okupazio protohistorikoak ulertzeko.

